

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- **Giza-baliabideak:** gure proiektuan baliabide garrantzitsuenak giza-baliabideak dira.
 - a. Alde batetik, gure kolaboratzaile gisa ibiliko diren **irakasleek** mantenduko dute gure enpresa bizirik, izan ere, haien jakintasuna ikasleei erakustea dugu helburu. Irakasle hauek **sarbide eskaera bat bidali** egin behar izango dute, bertan bere kurrikuluma eta eman ditzaketen ikasgaiak zerrendatuko dituzte. Horren arabera, zuzendaritza taldeak erabakiko du irakasle hori aproposa den ala ez.

Gainera, irakasle hauek **hilabetero finkatu beharko dute ze ikasleri irakatsiko** dieten. Horretarako, ikasleek eta bere familiek, eskaria egin beharko dute denbora epe baten barruan:

-Hileko azken 5 egunetan, familia eta ikasleei email edo jakinarazpen bat bidaliko zaie hauek irakaslearekin duten kontratua edo hitzarmena iraungitzeko zorian dagoela jakinarazteko.

-Hilabeteko lehenengo 3 egunetan, bezeroek erabaki beharko dute irakaslearekin jarraitu nahi duten edo irakasle berriren bat bilatu nahi duten. Irakasle berriren bat bilatu nahi ezker, informatikariak, algoritmo eta filtro desberdinen bidez, irakasle berri batzuk eskainiko dizkiete. Halere, irakasle aldaketak justifikazioaren bat izan beharko dute eta justifikazio horiek zuzendaritzako bost kideok aztertuko ditugu.

-Hilabeteko lehen 7 egunetan (aurretik aipatutako hiru egunak barne) familia edota ikasle bakoitzak zenbat ordu ikasi nahi dituen hilabetean finkatu beharko du eta horren arabera ordainketa egin beharko diote enpresari online eran edo formatu fisikoan dirua irakasleei emanaz. Lehen aste horretan, ikastorduren bat jaso ezker, hura ere ordaindu beharko dute.

Ordainketa hauek, informatikarien edo zuzendaritzako kideen eskutik pasako dira eta gero dagozkien banaketa pertinenteak egingo dira. Ogasun sailari deklaratu beharrekoak enpresak edo irakasle eta informatiko bakoitzak egin dezake bere kabuz.

- b. Bestalde, webgunea eta aplikazioa mantentzeko arduradunak, informatikoak, garrantzi handikoak ere badira hezkunderrentzat, izan ere, haiek gabe klaseen koordinazio eta antolaketa ezinezkoa litzateke. **Informatiko bat** behar izango dugu plataformaren kudeaketaz arduratuko dena. Printzipioz batekin nahikoa izango dugu, baina behar izatekotan besteren bat bilatuko dugu. Honen ardura, **webgunea behar bezala funtzionatzea da, eta bezeroei zerbitzu ezin hobea bermatuko diete.**



2. **Webgunea eta app:** webgunea informatikariak ikuskatuko du eta gure enpresaren etxe digitala izango da.
3. **Finantza-funtsak:** funts mota hauek oso garrantzitsuak dira aplikazioa eta webgunea sortzeko, lokala eta materiala ordaintzeko eta langileak (irakasle eta informatikari sarea, alegia) mantentzeko.
 - a. **Baliabide ekonomiko garrantzitsu bat oso, Kickstarter plataforma digitalaren izan daiteke.** Zer da Kickstarter delako hori? Galdetuko duzue. Plataforma hau, crowdfunding edo finantzazio webgune bat da. Bertan, gu bezalako ekintzaileek haien proiektu desberdinak azaltzen dituzte era idatzi, auditibo edota audiobisualean. Horixe da gure helburua finantzazio web honekin, ideia aurreratuz doan heinean eta bezeroak irabazten ditugun neurrian, dirua lortzea. Crowdfunding-ak eman duen diru kopuru handiena 20milioi eurokoa da baina gu errealistak izango gara eta horren %0.5a lortu ezkeru pozez zorutzen egongo ginateke. Izan ere, 100 mila euroekin gure enpresaren abiapunturako egon ahalko liratekeen arazoak konpondua egongo lirateke. Kickstarterren antzeko erakunde bat ere, bada **Indiegogo**. Honek ere, gureak bezalako proiektuak finantziatzen ditu eta Kickstarterrek akats egin ezkeru edo bigarren aukera bat behar izan ezkeru erabili dezakegu hau. **Kickstarterren eta indiegogoren aukerak ez bazaizkigu ondo ateratzen entitate finantzario batekin edo enpresaburu dirudun batekin kolaboratu beharko dugu.** Adibidez, Amancio Ortegak bekak ordaintzen ditu Estatu Espainolean zehar; ba antzeko zeozer egitea bila genezake. Bestela, enpresa handiek bezala, atzerapauso bat eman beharko dugu hazteko eta zor baten bidez enpresa hasi eta handitu. Kanpotik datozen inbertzioekin bukatzeko, azkenaukera gisa, eta aukera sumeena bada ere, udalari diru laguntzak eskatu ahal dizkiogu gure proiektuan inbertitzeko; 10mila eurorainoko diru laguntzak eman ahal baitituzte. Halere, Kickstarter, bankuak edota udala ez dira inbertsio finko bat, hasierako inbertsioa, bultzada bat baizik.
 - b. Bestalde, gure poltsikotik 20-30mila euro ipiniko ditugu beharrezkoak izan ezkeru; azpiegiturarekin erlazionatutako gastuei aurre egiteko bereziki.

- 4. Baliabide materialak:** baliabide hauen garrantzia aldakorra izan daiteke, bada, gure irakasleak ikasle bakoitzaren etxean egin dezaketelako lan. Halere, hobe pentsatuz eta zentzuz jokatzuz, irakasle bakoitzari chromebook bat ematea eta bezero gehien erakarri ditzakegun guneetan lokalak izatea erabaki dugu lan giro hobea sortzeko eta COVID garaian gerta daitezkeen konfinamendu eta ezbeharren aurrean babestuta egoteko.

